



**BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA Fundación Bancaria - BILBAO BIZKAIA KUTXA
Banku Fundazioak KUTXABANK SAN DUEN FINANTZA-PARTAIDETZAREN
KUDEAKETA-PROTOKOLOA**

Espainiako Bankuaren azaroaren 17ko 6/2015 Zirkularraren arabera eguneratua.

Bilbo, 2016ko otsailaren 16a

Hurrengo txostena gaztelaniazko txostenaren itzulpena da. Desberdintasunen bat egotekotan, gaztelaniazko bertsioa nagusitzen da.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MOTIBAZIOA, PRINTZIPIOAK ETA HELBURUAK	3
2.1 Motibazioa	3
2.2 Printzipioak eta helburuak.....	4
3. FUNDAZIOAK KUTXABANK SAN DUEN PARTAIDETZA GIDATZEN DUTEN OINARRIZKO IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK	6
4. BANKU-FUNDAZIOAREN PATRONATUAREN ETA KUTXABANKEKO GOBERNU-ORGANOEN ARTEKO HARREMANAK. KUTXABANKEKO KONTSEILARIEN IZENDAPENA ARAUTZEN DUTEN IRIZPIDEAK.....	7
5. BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU-FUNDAZIOA TALDEKO SOZIJETATEEN ETA KUTXABANK TALDEKO SOZIJETATEEN ARTEKO ERAGIKETAK. INTERES-GATAZKAK SAIHESTU ETA MUGATZEKO MEKANISMOAK ETA HAIEN ERREGULAZIOA	8
5.1 Talde-barneko Zerbitzuak	9
5.2 Interes-gatazka kasuetan aplikatzeko beste printzipio batzuk.....	10
6. BANKU-FUNDAZIOAREN ETA KUTXABANKEN ARTEKO LANKIDETZA ...	10
7. INFORMAZIO-FLUXUAK.....	12
8. IRAUPENA.....	14

1. SARRERA

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA - BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU-FUNDAZIOAREN Patronatuko kideek, 2016ko otsailaren 16an eginiko saioan, fundazioak Kutxabank SAn duen finantza-partaidetzaren kudeaketa-protokoloa (“**Protokoloa**”, aurrerantzean) idatzi, izenpetu eta onartu dute, aintzat harturik honako hauek: aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen (“**AKBFL**”, aurrerantzean) 43. artikulua; Espainiako Bankuaren 6/2015 Zirkularra (azaroaren 17koa); eta BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU-FUNDAZIOAREN (“**Banku Fundazioa**” edo “**Fundazioa**” edota “**BBK**”, aurrerantzean) Estatutuen 43. artikulua.

2. MOTIBAZIOA, PRINTZIPIOAK ETA HELBURUAK

2.1 MOTIBAZIOA

Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa sortu da Bilbao Bizkaia Kutxa - Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea (“**Kutxa**” edo “**Aurrezki Kutxa**”, aurrerantzean) legeak aginduta eraldatu denean; zehazki, AKBFLren Lehenengo Xedapen Iragankorrak ezarritakoa betetzean, zeinak banku-fundazio edo fundazio berezi bihurtzera behartu baititu banku baten bidez kreditu-erakunde gisa lanean ari ziren aurrezki-kutxak.

Kutxaren eraldaketa eta Banku Fundazio bihurtzea Kutxaren Batzar Nagusiaren erabakiz egin zen (2014ko ekainaren 30eko bilkura), eta eraldaketaren eskritura publikoa Bilboko Vicente María del Arenal notarioaren aurrean gauzatu zen, 2014ko azaroaren 20an, haren protokoloaren 1.596 zenbakiaz, EAeko Fundazioen Erregistroan inskribatua, F-375 zenbakiaz, eta erregistroaren laugarren sekzioan sailkatua. Banku Fundazioaren helbide soziala Bilbon dago (Diego Lopez de Haro 19-21); IFK G-48412720.

Fundazioa, protokolo hau gauzatzeko datan, Kutxabank SAREN (“**Bankua**” edo “**Kutxabank**”, aurrerantzean) kapital sozialaren % 57aren titularra da, estatuko legediaren arabera sortutako erakundea, helbide soziala Bilbon duena (Diego Lopez de Haro 30-32), Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua (5226 Liburukia, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1 Inskripzioa).

Kutxabank kreditu-erakunde bat da, banku bat partikularki, Espainiako Bankuaren Banku eta Bankarien Erregistroan inskribatua, 2012ko urtarrilaren 3an, 2095 zenbakiaz. Erakundearen LEI identifikatzailea (*Legal Entity Identifier*) 549300U4LIZV0REEQQ46 da. Kreditu-erakundeentzat ezarritako lege-erregimenean dihardu, eta honako organo hauek

gainbegiratzten dute, besteak beste: Europako Banku Zentralak, Espainiako Bankuak, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak.

AKBFLren 32.2 artikulua eta Fundazioaren Estatutuen 6. artikulua arabera, Banku Fundazioak helburu soziala du, eta zeregin nagusitzat ditu gizarte-ekintza garatzea eta modu egokian kudeatzea bere ondarea eta kreditu-erakunde batean duen partaidetza.

AKBFLren 43.1 artikulua arabera, kreditu-erakunde baten kapitalaren % 30eko edo hortik gorako partaidetza duten banku-fundazioek (edo partaidetza txikiagoa dutenek, Komertzio Kodearen 42. artikuluko irizpideetako baten bidez kreditu-erakundea kontrola dezaketenean) kreditu-erakunde baten finantza-partaidetzaren protokoloa egin behar dute, bi (2) hilabetean, fundazioa eratzen den egunetik kontatzen hasita.

Era berean, AKBFLren 43.3 artikulua arabera, Espainiako Bankua arduratzen da finantza-partaidetzaren protokoloaren gutxieneko edukia zehazteaz.

Hori horrela, Banku Fundazioak % 30etik gorako partaidetza duenez Kutxabanken kapital sozialean, AKBFLren 43.1 artikulua ezarritakoa betetzeko, Fundazioaren Patronatuak Kudeaketa Protokoloaren lehen bertsioa onartu zuen 2015eko urtarrilaren 23an eginiko bileran. Dokumentu horrek Espainiako Bankuaren onespina jaso zuen, erakunde horren Gainbegiratze Zuzendari Nagusiak igorritako eta izenpetutako 2015eko otsailaren 20ko idatzian jasota dagoenez.

Geroago, Espainiako Bankuaren azaroaren 17ko 6/2015 Zirkularrak, Lehenengo Xedapen Iragankorrean, adierazi zuen kudeaketa-protokoloa egin behar duten fundazioek hiru hilabete izango dituztela, zirkularra indarrean jarriko den egunetik kontatzen hasita, beren protokoloa zirkularraren gutxieneko edukira egokitu eta emaitza Espainiako Bankuari igortzeko, azken honen onespina jaso dezan.

Eskakizun hori betetzeko, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuak, 2016ko otsailaren 16an egin duen bilkuran, honako dokumentu hau onartu du, fundazioaren Kudeaketa Protokoloa Espainiako Bankuaren 6/2015 Zirkularrera egokitzen duena.

2.2 PRINTZIPIOAK ETA HELBURUAK

Protokolo honen xedea da oinarrizko printzipio batzuk ezartzea Banku Fundazioaren egitekoa –Kutxabanken akzioduna den aldetik– gidatzeko, Babes Sistema Instituzionala desagertu eta gero. Sistema horren bidez, euskal aurrezki-kutxek (Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa, Bilbao Bizkaia Kutxa - Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea, eta Kutxabank) beren finantza-lana egiten zuten, zeharka, azken horren bitartez.

Babes Sistema Instituzionalaren amaiera akordio batean gauzatu da, banku-fundazioek (Bilbao Bizkaia Kutxa eta Vital Kutxa) eta Kutxabankek 2015eko martxoaren 24an sinatua.

Horrela, Protokolo honen helburu nagusiak dira:

- 1) Oinarrizko irizpide estrategikoak definitzea Fundazioak Kutxabanken duen partaidetzaren kudeaketarako.
- 2) Fundazioaren Patronatuaren eta Bankuaren gobernu-organoen arteko harremanak zehaztea; besteak beste, Fundazioak Kutxabankek kontseilariak izendatzeko erabiltzen dituen irizpideak.
- 3) Irizpide orokor batzuk arautzea Fundazioaren eta Kutxabanken arteko eragiketetarako (Banku Fundazioa Bankuaren akziodun izatetik eratorritakoak), eta mekanismo batzuk ezartzea interes-gatazkak sortzea saihestu edo mugatzeko (eta, sortuz gero, horiek kudeatzeko).
- 4) Oinarrizko printzipioak zehaztea Banku Fundazioaren eta Bankuaren arteko balizko lankidetzarako, bi helbururekin: a) Kutxabankek gizarte-erantzukizun korporatiboko politikak ezarri ahal izatea Banku Fundazioaren bitartez; eta, aldi berean, b) Kutxabank hedapen-plataforma izatea bere Gizarte Ekintzako programetarako, Kutxabank bulegoen sarearen bitartez eta, hala dagokionean, beste baliabide material batzuen bidez.
- 5) Informazio-fluxu egoki bat erregulatzea, Banku Fundazioari eta Kutxabanki beren finantza-egoerak lantzeko aukera emango diena, eta aldian behingo informazio- eta gainbegiratze-betebeharrak betetzea, Espainiako Bankuaren eta beste organo arautzaile batzuen aurrean.

Protokolo honen ondorioetarako,

(a) Banku Fundazioari eta, halakorik balego, haren taldeko sozietateei eta Banku Fundazioaren mendeko sozietateei, “Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateak” deituko zaie (**“Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateak”**, aurrerantzean).

(b) “taldea” eta “mendeko sozietatea” esapideen esanahia Komertzio Kodearen 42. artikulua ezartzen duena izango da.

Protokolo honetan ezarritakoa gorabehera, aintzat hartuko da ere unean-unean aplikatu beharreko legediak jasotakoa; besteak beste, gai hauei buruz ezarritakoa: a) banku-fundazioak

kreditu-erakundeetan duen partaidetzaren kudeaketa; b) akziodun esanguratsuekiko harremanak; c) interes-gatazkak; eta d) lotutako eragiketak eta informazio pribilegiatua.

3. FUNDAZIOAK KUTXABANK SAN DUEN PARTAIDETZA GIDATZEN DUTEN OINARRIZKO IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK

Fundazioak Kutxabanken duen partaidetzaren kudeaketa gidatuko duen oinarrizko irizpide estrategikoa hauxe da: hots, Kutxabank SAN duen egungo posizioa mantentzea, aukera emango diona Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioari Bankuaren kudeaketa egoki eta zuhurrean sakontzeko, eta zorrotz beteko dituen ekainaren 26ko 10/2014 Legeak (kreditu-erakundeen antolakuntza, gainbegiratze eta kaudimenari buruzkoa) eta aplikatu beharreko gainerako arautegiek aurreikusitako partaidetza esanguratsuen erregimeneko printzipioak.

Kutxabank SAko partaidetzak (eta partaidetza horretatik lortutako errendimenduak, hortaz) bermatu egiten ditu BBKren egungo gizarte-ekintzarako sarrerak, baita haren etorkizuneko garapena ere, eta funtsezkoa da hori erakundearentzat. Aurrekoa gorabehera, politika kontserbatzaile bat ezarriko da dibidenduen banaketan, inola ere arriskuan jarriko ez duena bankuaren kaudimena.

Bestetik, Banku Fundazioak lan egingo du Kutxabanken finantza-jardueraren kudeaketa errespetutsua izan dadin desagertutako aurrezki-kutxaren balio tradizionalekin. Berezi zainduko du Kutxabank kreditu-erakunde nagusiki txikizkari izatea, zerbitzu-bokazio nabarmen batekin, arreta berezia jarriko duena partikularretan, autonomoetan, enpresa ertain eta txikietan, eta ekonomia produktiboaren eta haren internazionalizazioaren printzipioekin bat egiten duten jardueretan, hori guztia kontuan harturik merkatuaren eta finantza-negozioaren bilakaera, eta guztiz beteta unean-unean aplikatu beharreko arautegia.

Era berean, aintzat harturik egun bizi ditugun egiturazko aldaketak, BBKk Kutxabankeko bere estrategia egokituko du kapital-eskakizun dinamikoen bilakaerara, Europako Banku Gainbegiratze Batzordeak hartutako erabakien ondorioz, eta bermatu egingo du Kutxabanken estrategia merkatuko ekonomia sozialaren printzipioetan oinarritzea (unean-unean indarrean egongo den eta Europar Batasuneko organismo erregulatuak eta gainbegiratuak eratorritako marko arautzailera egokitutako printzipioak).

Aurrekoaren ildotik, Fundazioak ahaleginak egingo ditu, bere finantza-jardueraren barnean, desagertutako aurrezki-kutxaren gizarte-ospearen oinarrian –duela ehun urte baino gehiago sortuz zenez geroztik– egon den kudeaketa komertzial zuzen eta pertsonalatuaren printzipioak eta balioak bermatzeko, haren kapital handiena eta hoberena direlako.

Azkenik, aipatzekoa da bereziki ez dagoela inongo jarduera itundurik Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren eta Kutxabank SAko akziodunak diren gainerako banku-fundazioen artean. Partikularki, bertan behera gelditu da Babes Sistema Instituzionala, zeinaren bidez euskal aurrezki-kutxek (Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa, eta Bilbao Bizkaia Kutxa - Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea) beren finantzalana zeharka egiten baitzuten, Kutxabank bitartez. Babes Sistema Instituzionalaren amaiera akordio batean gauzatu da, banku-fundazioek (Bilbao Bizkaia Kutxa eta Vital Kutxa – dagozkien aurrezki-kutxen jarraitzaileak–) eta Kutxabank SAk 2015eko martxoaren 24an izenpetua.

4. BANKU-FUNDAZIOAREN PATRONATUAREN ETA KUTXABANKEKO GOBERNU-ORGANOEN ARTEKO HARREMANAK. KUTXABANKEKO KONTSEILARIEN IZENDAPENA ARAUTZEN DUTEN IRIZPIDEAK

Fundazioaren Patronatuaren eta Kutxabankeko gobernu-organoen arteko harremanak, eta, zehazki, Banku Fundazioak Kutxabankeko kontseilariak izendatzeko proposamena, irizpide hauen arabera gauzatuko dira:

- 1) Gobernu-organoen profesionalizazioa eta gardentasuna, honako hauek ezarritakoaren arabera: ELGA, AKBFL, abenduaren 3ko 31/2014 Legea (Gobernu Korporatiboaren hobekuntzarako Kapital Sozietateen Legea), eta gainbegiratzailen aholkuak (Europar Batasuneko erakundeak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, Espainiako Bankua).
- 2) Fundazioaren Patronatuaren esku egongo da botoa zehaztea eta Kutxabankeko akzioei dagozkien gainerako eskubide politikoak gauzatzea (Banku Fundazioaren titulartasuneko akzioak).
- 3) Banku Fundazioaren Patronatuaren eskumena izango da Kutxabankeko kontseilarien izendapena proposatzea, haien izendapena Fundazioari dagokionean.
- 4) Fundazioak izendatuko duen Kutxabankeko kontseilari-kopurua bat etorriko da unean-unean Kutxabanken izango duen partaidetzarekin, eta, ondorioz, beretzat gordeko du ordezkaritza proportzionalerako eskubidea gauzatzea.
- 5) AKBFLren 43.1.b) eta 3.2 artikuluen arabera, Patronatuak proposatutako eta Fundazioak izendatutako Kutxabankeko kontseilariak legediaren eskakizunak bete beharko dituzte (ohoragarritasuna, profesionaltasuna, esperientzia eta gobernamendu ona).

Kutxabankekoko gobernu-organoetarako kontseilarien izendapen-proposamenean, Patronatuak kontuan hartuko ditu organo erregulatzailen gobernu korporatibo onerako aholkuak eta proposamenak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritako helburuak eta, bereziki, profesionaltasuna eta esperientzia Kutxabankekoko interes-arlo estrategikoetan.

Era berean, Patronatua ahaleginduko da Kutxabanken jarduera egoki eta zuhurrerako behar diren sentsibilitateak integratzen Kutxabankekoko Administrazio Kontseiluan, jarduera hori bat etor dadin desagertutako aurrezki-kutxatik jasotako ondarearekin, eta koherentea izan dadin 3. atalean aipatutako printzipioekin, Bankuko gainerako akziodunek izan dezaketen eragina gorabehera.

Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioan, ez dago aldi berean Kutxabankekoko Administrazio Kontseiluko kide den Patronatuko kiderik, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren Estatutu Sozialetako 23. artikulua espresuki debekatzen duelako hori. Beraz, ez dago interes-gatazkarik sortzeko aukerarik Patronatukide eta Kutxabankekoko Kontseilari karguen bateragarritasunagatik.

5. BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU-FUNDAZIOA TALDEKO SOZIJETATEEN ETA KUTXABANK TALDEKO SOZIJETATEEN ARTEKO ERAGIKETAK. INTERES-GATAZKAK SAIHESTU ETA MUGATZEKO MEKANISMOAK ETA HAIEN ERREGULAZIOA

Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateen eta Kutxabank Taldeko Sozietateen arteko eragiketak koordinatuak eta gardenak izan daitezzen ezarri beharreko harremanak ondoren aipatzen diren parametroetan oinarritzen dira, helburu bikoitz batekin:

- alde batetik, eragiketa horietarako beharrezkoak diren irizpide orokorrak finkatzea.
- bestetik, mekanismoak ezartzea Banku Fundazioa Kutxabankekoko akziodun izateak eragin ditzakeen interes-gatazkak saihestu eta mugatzeko, eta mekanismo horiek erregulatzea.

Aurretik aipatutako parametroak, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateen eta Kutxabank Taldeko Sozietateen arteko eragiketak arautuko dituztenak, honako hauek dira:

1) Eragiketak edo talde barneko zerbitzuen eskaintza merkatu-baldintzetan gauzatzea, horretarako behar diren irizpideak ezarrita, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko

Sozietateek eta Kutxabank Taldeko Sozietateek elkarri eskaintzen eta eskainiko dizkieten zerbitzuak identifikatu ondoren.

2) Beharrezko mekanismoak zehaztea eta aplikatzea informazio-fluxu egokia ziurtatzeko Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateen eta Kutxabank Taldeko Sozietateen artean, haien kudeaketa-beharrei eta organo erregulatzailleen aurrean dituzten betebeharrak erantzuteko, eta Banku Fundazioak Kutxabanki buruz behar duen informazio guztia lortuko duela bermatzeko, AKBFLk eta haren garapenerako arautegiak ezarritako betebeharrak betetzeko helburuarekin.

3) Informazio-mekanismoak ezartzea Banku Fundazioaren Patronatuak une oro zer betebeharrak dituen jakiteko, leialtasun-alorrean eta beste batzuetan, Fundazioari aplikatu dakizkiokeen betebeharrak Kutxabankeko akziodun izateagatik, eta akziodun izateagatik Banku Fundazioak izan ditzakeen interes-gatazketan.

4) Gehiengo sendoen beharra, bai Patronatuan bai Ordezkaritza Batzordeetan, talde barneko zerbitzuen prestazio-eragiketak onartzeko eta eragiketa horien baldintzak ezartzeko.

5) Banku Fundazioaren Patronatuko kideen (edo haien senitartekoen) eta Kutxabanken artean eragiketarik ez egiteko komenigarritasuna, bezero arrunt gisa egin ditzaketen bankuko zerbitzu eta produktuen kontratazioetatik harago (merkatu-baldintza normaletan beti). Salbuespen gisa, era honetako eragiketaren bat egingo balitz, Patronatuko kideak eragiketaren ezaugarrien berri eman beharko dio Patronatuari. Informazio hori, gainera, banku-fundazioaren Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean jasoko da.

5.1 TALDE-BARNEKO ZERBITZUAK

5.1.1 Bi dira zerbitzu-prestazio arlo nagusiak Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateen eta Kutxabank Taldeko Sozietateen artean:

1) Kutxabank Taldeko Sozietateek eskaintako banku- eta finantza-zerbitzuak Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateei. Besteak beste, finantzazioa eskaintzea kredituen, maileguren edo antzeko eragiketen bidez, bermearekin –errealak edo pertsonalak– edo bermerik gabe, gordailuak eta beste pasibo-eragiketa batzuk, eta beste finantza-zerbitzu batzuk.

2) Kutxabank Taldeko Sozietateek hainbat eratako zerbitzuak eskaintzea Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateei, eta alderantziz. Era adierazlean baina ez-murriztailean aipatuta, era honetako zerbitzuak dira: higiezinak eta azpiegituren errentamendu- eta kudeaketa-zerbitzuak; zerbitzu korporatiboak; proiektuen kudeaketa;

eragiketen eta negozioen kudeaketa; administrazio- eta aholkularitza-zerbitzuak; informazio-hornidura eta harreman komertzialak; informazio-sistemen garapena, mantenimendua eta eragiketa; ezagutza-transferentzia eta aholkularitza (jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen lagapen edo lizentziak barne); Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateen zeharkako titulartasuneko fondoan lege-ordezkaritza eta kudeaketa-zerbitzuak.

Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateen eta Kutxabank SA Taldeko Sozietateen artean gaur egun indarrean dauden harremanak, eta etorkizunean hitzartu daitezkeen zerbitzu eta eragiketak, “Talde-barneko Zerbitzuak” esapidez aipatuko dira.

5.1.2 Talde-barneko Zerbitzuak idatziz jasoko dira beti, eta printzipio nagusi hauetan oinarrituko dira, kontratu partikular bakoitzak adierazitakoa gorabehera:

- 1) Gardentasuna eta zerbitzu-prestazioa merkatu-baldintzetan eskaintzea, zuzenean edo azpikontratututako hirugarrenen bitartez.
- 2) Tratu-lehenespena eta aldean konpromisoa unean-unean merkatuan eragiketa edo zerbitzu horretarako hirugarrenei eskaintzen ari zaizkien baldintza onuragarrienak elkarri eskaintzeko.
- 3) Aldeen konpromisoa zerbitzuak ahalik eta arreta handienaz eta eskura dituzten bitarteko guztiekin eskaintzeko.
- 4) Aldeen konpromisoa konfidentziasuna zaintzeko, eta Talde-barneko Zerbitzuen prestazioan lor dezaketen informazioa ez zabaltzeko, agintari judizialek eta legeak eskatzen dutenean izan ezik.

5.2 INTERES-GATAZKA KASUETAN APLIKATZEKO BESTE PRINTZIPIO BATZUK

Nolanahi ere den, Banku Fundazioak egin behar hauek izango ditu Kutxabankeko akziodun gisa: a) leialtasun-arloan dagozkion betebeharrak betetzea, baita merkataritza-sozietateetako akziodunei (kreditu-erakundeetako akziodunei, bereziki) aplikatzen zaizkien beste arlo batzuetakoak ere; b) Aintzat hartzea eta egoki baloratzea Bankua kontrapartea den eragiketetan sor daitezkeen interes-gatazkak.

6. BANKU-FUNDAZIOAREN ETA KUTXABANKEN ARTEKO LANKIDETZA

Kaudimen eta kudeaketa-ospe aitortua zituen antzinako aurrezki-kutxatik, Banku Fundazioa sortu da, kreditu-erakunde ez ezik, irabazi asmorik gabeko erakunde ongile ere badena,

gizarte-orientazio nabarmena duena, eta konpromiso eztabaidaezina Bizkaiko Lurralde Historikoaren garapen sozio-ekonomikoarekin.

Banku Fundazioaren ikuspegi eta egitekoa da antzinako aurrezki-kutxaren lidergo-, konfiantza- eta gizarte-balioak mantentzea, egokitzea eta sendotzea, ingurune sozio-ekonomiko berri eta dinamiko baten baitan, baita haren sortze-helburuen titulartasuna eta garapena ere. Fundazioaren helburuak betetzeko, komenigarria izan daiteke orain arte operatiboki erabili diren bideak mantentzea, Kutxabank antzinako aurrezki-kutxaren (banku-fundazio, gaur egun) finantza-jarduerarako tresna izan den garaian erabili direnak.

Banku Fundazioa, Kutxabankekko erreferentziatzko akziodun gisa, ahaleginduko da Bankuaren gizarte-erantzukizun korporatiboa (GEK) bat etor dadin Fundazioaren egiteko eta balioekin, sinergiak eta eraginkortasunak lortzeko Kutxabanken GEK helburuen eta Fundazioaren GEK helburuen artean.

Aurrekoa aintzat harturik, Banku Fundazioak eta Kutxabankek bien arteko lankidetzak bultzatuko dute, kontuan izanik Fundazioaren egiteko nagusia eta haren kudeaketa-ahalmena, honako alderdi hauei dagokienez:

- 1) Fundazioaren Gizarte Ekintzako jardueren sustapena eta hedapena, bulego-sarearen bitartez eta, hala dagokionean, beste baliabide material eta teknologiko batzuen bidez.
- 2) Kutxabanken GEKren koordinazioa Banku Fundazioaren Gizarte Ekintzako helburu eta programekin, eta haren balio estrategikoa indartzea lurraldearen eta herritarren garapenerako.
- 3) Kutxabankek eta Taldeko Sozietateek Banku Fundazioa erabiltzea, gizarte-erantzukizun korporatiboko ekimenak gauzatzeko bide gisa.

Aurreko guztia betetzeko, akordioak egingo dira “ad hoc”, zeinetan jasoko baitira, besteak beste: helburuak, bi aldeek eskura jarriko dituzten baliabideak, kostuak eta kudeaketa-lanagatik ordaindu beharreko ordainsariak. Akordio horiek, nolahi ere, 5. atalean aipatutako Talde barneko Zerbitzuen printzipioen mende egongo dira.

Protokolo honen izenpetze-datan, Bilbao Bizkaia Kuxa Banku Fundazioa eta Kutxabank lankidetzan ari dira banku-fundazioaren aktibo jakin batzuei lotuta eta azken horren jarduera batzuetan (ikus Protokolo honen I. Eranskina –Zerbitzuen Prestaziorako Oinarriko Kontratua–, 2012ko abenduaren 27koa). Lankidetzak hori aurretik aipatu diren irizpideek erregulatuko dute.

7. INFORMAZIO-FLUXUAK

7.1 Banku Fundazioak betebeharrak batzuk ditu, AKBFLk ezarritakoaren arabera (bereziki, 44. artikulua ezarritakoaren arabera), eta betebeharrak horiek betetzeko, ezinbestekoa da eskura izatea Kutxabanken finantza- eta kontabilitate-informazioa.

Banku Fundazioa, gainera, AKBFLren 46. artikulua arabera, Espainiako Bankuaren gainbegiratzearen mende dago. Gainbegiratzeari lan horretan, Espainiako Bankuak informazioa eska diezaiokete Fundazioari, eta honek, erantzuteko, Kutxabanken estrategia-, finantza- eta kontabilitate-informazioa behar izan dezake. Hortaz, Kutxabank behartuta dago informazio hori Fundazioari ematera. Hori guztia aintzat harturik kudeaketa-lan leial eta arduratsuak eskatzen dituen bideak eta konfidentzialtasuna.

7.2 Fundazioak eta Bankuak, beren plangintza- eta kontrol-jarduerak egiteko eta erakunde erregulatu gisa dituzten betebeharrak betetzeko, beharrezko informazioa eman beharko diote elkarri, beren ahalbideen arabera, beste aldeak bere lege-betebeharrak bete dituzten. Besteak beste:

- 1) Beren finantza-egoerak prestatzea, indibidualak nahiz bateratuak.
- 2) AKBFLren 44. artikulua aurreikusitako finantza-plana prestatzeko betebeharrak betetzea, eta erreserba-fondo baten zuzkidura egiteko, artikulua horren hirugarren atalari aurreikusten duen Bankuaren baliabide berekien beharri erantzuteko.
- 3) Espainiako Bankuaren, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren eta beste organo gainbegiratzailerik batzuen aurrean dituzten betebeharrak betetzea.
- 4) Beren baliabide berekien, inbertsio-koefizienteen eta kaudimen-marjinen jarraipen xehea egitea.
- 5) Arrisku-analisiak egitea eta finantza-konglomeratuen legediak ezarritako baldintzak betetzea.
- 6) Partaidetutako erakundearen baliabide berekien beharrik zenbatestea, hainbat testuinguru makroekonomiko erabilita.
- 7) Alderdi fiskalak aztertzea eta haien jarraipena egitea.
- 8) Espainiako Bankuak beharrezkotzat duen beste edozein neurri, Kutxabanken kudeaketa-lan egoki eta zuhurra, eta ordenazio- eta diziplina-arauak betetzeko gaitasuna bermatzeko.

9) Aurrekoen osagarri izan daitekeen beste edozein neurri, baldin eta legeak, Espainiako Bankuak edo beste organo erregulatzaile batek eskatzen badu.

7.3 Banku Fundazioa eta Kutxabank elkarlanean arituko dira bai batak bai besteak informazioa eman diezaien gainbegiratzaileei eta *rating* agentziei, arriskuak zehazteko behar den zorroaren bilakaerari buruzko informazioa, kasuan kasu aplikatu beharreko arautegiak arau-haustetzat jotzen duenean izan ezik.

7.4 Gainera, Kutxabankek beharrezko informazio guztia emango dio Fundazioari, azken horrek egungo eta etorkizuneko kaudimen-arautegitik eratorritako betebeharrak bete ditzan.

7.5 Klausula honetan aipatzen den informazioari dagokionez:

1) Informazioa erabiliko da soil-soilik aurrez ezarritako helburuekin.

2) Beharrezko neurriak hartuko dira “informazio pribilegiatuaren” fluxua (Banku Fundazioari eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa Taldeko Sozietateei buruzko, edo Kutxabanki eta Kutxabank Taldeko Sozietateei buruzko informazioa), erakunde horien sailen artean, behar-beharrezkoa den informazioa ezagutzera muga dadin, ezinbestekoak diren pertsona eta arloetara (kanpoko aholkulariak barne). Pertsona horiek beren gain hartuko dute informazio hori isilpean gordetzeko konpromisoa, Protokolo honetan ezarritakoaren arabera.

3) Segurtasun-neurriak hartuko dira informazio-tratamendurako (zaintza, artxiboa, sarbidea, erreprodukzioa eta banaketa).

7.6 Bai Banku Fundazioak bai Kutxabankek beharrezko neurriak hartuko dituzte modu egokian betetzeko beren informazio-konpromisoak, eta informazio-fluxuetarako behar diren baliabideak ipiniko dituzte, konfidentziasun-konpromisoak errespetatuta betiere.

7.7 Atal honetan ezarritako guztia betetzeko, Banku Fundazioak eta Kutxabankek komunikazio-panel bat jarri dute abian, 2016ko urtarrilean, helburutzat duena Bankuaren adierazle gakoan aldi behingo neurketa eta jarraipena egitea, bi ikuspegitatik:

- Alde batetik, inbertsioaren portaeraren jarraipenaren eta ebaluazioaren (balorazioa, errentagarritasuna, etab.) eta hari loturiko arriskuen adierazle estandarrak.
- Bestetik, erakundearen negozio-jardueraren adierazle eta ratio espezifiko nagusiak, etengabeko monitorizazioa ahalbidetuko dutenak, legeak ezarritako mugen eta

Bankuaren Negozioaren Garapenerako Planaren arabera, gaur egun plan hori betetzeak Fundazioaren Finantza Plana betetzea baldintzatzen duen neurrian.

8. IRAUPENA

Protokolo hau indarrean egongo da Banku Fundazioak Kutxabanken kapital sozialaren % 30eko edo hortik gorako partaidetza duen bitartean, edo partaidetza txikiagoa izanik, Komertzio Kodearen 42. artikuluko irizpideetako baten bidez Bankua kontrola dezakeen bitartean, eta horixe ezartzen badu unean-unean aplikatu behar den arautegiak.

Espainiako Bankuaren azaroaren 17ko 6/2015 Zirkularraren laugarren arauak ezarritakoaren arabera, Protokolo honetan eginiko edozein aldaketa Espainiako Bankuari jakinarazi beharko zaio, hilabeteko epean, Patronatuaren onespren-egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, urte bakoitzeko lehen lauhilekoan, Banku Fundazioak idatzi bat bidaliko dio Espainiako Bankuari, igorritako azken protokoloa indarrean dagoela berretsiz.

Azkenik, AKBFLren 43.1 artikulua ezarritakoari jarraiki, Protokoloa Banku Fundazioaren eta Kutxabanken web orrian argitaratuko da, eta dagokion gertakizun bereizgarriaren bitartez, hala dagokionean.

Bilbo, 2016ko otsailaren 16a